



# HIRU3 BULETINA

Kaixo, lagunok!

**Uda iristeko azken txanpan, jaiz eta ekimenez beteta gabiltza HIRU3n!** Hilabete honetan ospatuko dira Herri Urrats eta Ibilaldia, eta HIRU3 han egongo da. Gainera, HIRU3 kamiseta berria egingo dugu eta zure marrazkia agertzea nahi baduzu, bidalguzu! ETB3n ere badugu zer ikusi, film luzeak izango ditugu asteburuetan. **Izan Hiru3!**

## BADATOR HIRU3 JAIA!!!

**HIRU3 JAI**ak musika izango du ardatz, ekainaren 11n, Bilbon, Casilda Iturrizar parkean. **Egun osoko jaia** izango da, bost gunetan banatuta. Goizaren eta 3TXULO saioetako ikuskizunez gain, erronka berezia egingo dugu: Euskararen Txantxangorria abestu, dantzatu eta joko dugu! Goizean hasi eta arratsaldera arte, 11:00etatik 18:00etara, hainbat ikuskizun, musika emanaldi, tailer eta sorpresa izango dira bertan. Zure zain izango gara!



## HAURRENTZAKO FILM LUZEAK, ASTEBURUETAN, ETB3N

ETB3k indartu egin du asteburuetako programazioa, eta, maiatzaren 12tik aurrera, **haurrentzako film luzeak** izango dira ikusgai asteburuetan ETBren hirugarren katean. Ostiraletan 21:30ean, larunbatetan 21:00etan eta igandeetan 19:30 aldera izango dira ikusgai. Hartara, etxeko txikienek hainbat pelikula ikusi ahal izango dituzte, euskaraz.

## HIRU3 HERRI URRATSEN ETA IBILALDIAN EGONGO DA

**HIRU3** gunea ikastolen aldeko jaietan izango da aurten ere. **Maiatzaren 14an Herri Urratsen**, Senpereko aintziran, eta **28an Ibilaldian, Mungian**. HIRU3 dantza! ekitaldia eta Gorritxo zein 3TXULOko pertsonaien irudiarekin argazkia ateratzeko aukera izango dute hara hurbiltzen diren guztiek.



## HIRU3 KAMISETA MARRAZKI LEHIAKETA

Badakizu HIRU3 kamiseta berria egingo dugula? Bada, han zure marrazkia agertzea nahi baduzu, **bidalguzu zure marrazkia HIRU3ko kamiseta egiteko!** Jasotako marrazki guztiak webgunean izango dira ikusgai; ondoren, botoa emateko aukera egongo da eta sariduna HIRU3 jaietan emango da ezagutzera.

## IBAIZABALEN APIRILEKO LIBURUA ZOZKATU DUGU

Apirilean, **Ibaizabal** argitaletxearen liburua zozkatu dugu. Izan ere, **hilero**, hilabete horretan urteak bete dituzten **Hiru3ko kideen artean liburu bat zozkatzen dugu, Ibaizabalen eskutik. Apirilekoa, Beñat Aranguren Arzelusi** egokitu zaio, eta "Jatera!" liburua jasoko du. Zorionak, **Beñat!**

